EBAZPENA, 2019KO APIRILAREN 3KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZUZENDARIAREN 2019KO MARTXOAREN 27KO EBAZPENA ALDATZEN DUENA. AZKEN EBAZPEN HONEK 2018/2019 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIETAKO IKASLEEKIN ZERBITZUAK EMATEKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA BEHIN BETIKO EBAZTEN ZUEN.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko martxoaren 27ko ebazpenaren bidez 2018/2019 ikasturterako hezkuntza-premia berezietako ikasleekin zerbitzuak emateko hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia behin betikoz ebatzi zen.

Deialdiren 8. artikuluaren arabera hautatutakoa zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.

Aipatutako kasua eman denez, eta eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2019ko martxoaren 27ko Ebazpenaren I. eranskina aldatzea ondoren ezarritakoaren arabera:

OETHLZ/CTHDTE: Etxeko arreta (Bizkaia (2))

ABIZENAK, IZENA	LAN ERLAZIOA	LEHENT.	PUNTUAZIOA
GARCIA CURROS ANA BELÉN	F	1	9,60.
LARRINAGA BASARRATE, LIHER	F	1	7,76

ERREKURTSOAK

Administrazio bidea amaitzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121.artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 3an.

Jon Agirre Huerga
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA